

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 3a

63. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- 11-24/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita programa bat taxutu dezan Kubako Gobernuak bere herritarren oinarriko beharrezan asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten baitu. Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-24/POR-00176. Galdera, Espainiako Alderdi Komunistari ebatsi eta Nafarroako Gobernuaren esku dauden elementu sinboliko-bereizgarriei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00177. Galdera, etxegabetzeen prebentzioari buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00199. Galdera, Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00200. Galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00201. Galdera, Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00202. Galdera, jakiteko ea nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkari, Robot Dreams filmaren taldeari babes instituzionala emateko. Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00203. Galdera, boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (11. or.).

- 11-24/PES-00204. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00205. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00206. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00208. Galdera, zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimaketako irisgarritasun-neurriari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00209. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00210. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00211. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00212. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00057. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan**

### *DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen ordainsari-sistemari buruzko azterlan bat egin dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Osasun Departamentuaren eta haren mendeko erakunde autonomoen –Nafarroako Osasun Zerbitzua eta NOPLOI– egungo ordainsari-sistemek ezaugarri komun bat dute: 1992ko ordainsari-sistema zaharkitu betetik heldu dira (11/1992 Foru Legea). Sistema horrek hiru ordainsari-mota jasotzen ditu:

A) Oinarrizko ordainsari pertsonalak (mailaren araberako hasierako soldata eta antzintasuna).

B) Lanpostuko ordainsari osagarriak (destinoko osagarria, osagarri berariazkoa, produktibitate-osagarria, lanaldi-luzapena edo arrisku berezia...).

C) Kalte-ordainak eta bestelako ordainsari bereziak (sakabanatze geografikoagatiko gehigarria, familia-laguntza, zerbitzua dela-eta egindako gastuak, bidaiak edo bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzea, aparteko orduak...).

Geroago heldu zen lanbide-karrerari buruzko legeak parametro berri batzuk jaso zituen, baina praktikan ez daukanez lortutako merezimendu profesionalak egiaz diskriminatze mekanismorik, antzintasuna ordaintzeko mekanismo gehigarri bihurtu da.

Gaur egun, ez osasun-sistemako profesionalentzat indarrean diren titulazio ofizialekin, ez Europa-ko eremu akademikoarekin bat ez datorren mailaren definizio batean oinarritzen dira oinarrizko ordainsari pertsonalak.

Ordainsari osagarriek ez dute islatzen osasun-sistema publikoan lan egiten dutenei eragiten dien egoera profesionalen aniztasuna, eta zehaztugabetasunak zenbait kasutan dakar eite atipikoak baliatzea egoera administratibo errealarekin edo lanpostu bakoitzaren ezaugarriekin bat ez datozen egoerak ordaintzeko (langilerik gabeko atalburutzak edo zerbitziburutzak, produktibitate finkoaren osagarria...).

Bestalde, beharrezkoa da identifikatzea zer eginkizun ordaindu behar den dedikazio eta sistemarekiko lotura handiagoa daukatelako, bai eta zer egoera dela-eta ezarri behar diren osagarri bereziak, exigentzia pertsonal edo profesional handiagoa dakartelako. Honako hauek egon litezke horien artean: produktibitatea, arriskua, dispertsio geografikoa edo betetzen zailak diren lanpostuak, guardiako txandak, erantzukizun bereziko lanpostuak, zailtasun bereziko lanpostuak, hobekuntza-

taldeetan parte hartzea inplikazio-maila ezberdinekin, graduurreko-irakaskuntzako profila, graduondokoa, prestakuntza etengabea, ikerkuntzan inplikatzeko, bai eta kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk ere, sistemarekiko inplikazio-maila ezberdinak dakartzatelako, osasun-arreta eta haren helburuak.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua ea Osasun Departamentua premiatzen ditu azterlan bat egin dezaten urtebeteko epean, osasun-sistema publikoko profesionalei ordaintzen zaizkien alderdi guztiak baloratzeko (oinarrizko ordainsari pertsonala, ordainsari osagarriak eta kalte-ordainak

eta bestelako ordainsari bereziak), non osasun-sistema publikoan aritzen diren lanpostuen definiziorako elementuak jasoko baitira (maila-atxikipena, osasun-lanpostutzat hartzea...), horrekiko-lotura, estamentuen arteko moldakortasuna, halako moduan non optimizatu egingen baita prestakuntzaren arloko inbertsioa edo antzeko lan-profilei lotutako espezializazioa, Europako eremu akademikoari egokitua. Azterlanaren emaitza parte-hartze politiko, sindikal eta herritarrari irekitako formatu batean aurkeztu beharko da, halako moduan non ezarri beharreko ordainsari-oinarri berriek adostasun eta gardentasun handia izanen baitute.

Iruñean, 2024ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

## **11-24/MOC-00060. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita programa bat taxutu dezan Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko**

### *CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita programa bat taxutu dezan Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako mozio hau aurkezten du, Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordean eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Kubako Errepublika nazioarteko jazarpena eta blokeoa pairatzen ari da, azken hamarkadetan –zehazki, 1959ko Iraultzaren garaipenetik–, Estatu Batuen aitzindaritzapean, kubatarrek itozteko eta hango gobernua erorarazteko xedez. Zailtasunak zailtasun, Kubako herriak ia 60 urtez aurre egin ahal izan die merkataritza-enbargoari eta jazarpen politiko eta mediatikoari, baina azken urteotan, bereziki pandemiaren ostean, gero eta zailagoa da kubatarrek bizi duten egoera. Hain da zaila non, bere historian lehen aldiz, Kubako gobernua laguntza eskatu baitio Elikagaien Mundu Programari.

Krisi ekonomikoa eta hornigaiaren krisia gero eta larriagoak dira. Kubak, Latinoamerikan haur-gosearekin amaitzea lortu duen herrialde bakarra izateagatik balioetsia, gero eta zailtasun gehiago dauka zenbait elikagai lortzeko; batez ere, esne-hautsa. Estatu Batuek ezarritako blokeo kriminalak ez du etenik, NBEaren Batzar Nagusiak blokeoa amaitzeko aldiro eskatu arren. Azkenekoz, iragan azaroan. Erakunde horrek hogeita hamar-

garren aldiz bozkatu zuen, ia aho batez, enbargoa amaitzearen alde (185 boto alde, 2 aurka eta 2 abstentzio), "gerra ekonomikoko berariazko ekin-tza bat, xede duena herrialde horrek diru-sarrera finantzarioak lor ditzan ekiditea, gobernuak herri-tarren beharrezanean erantzuteko gaitasuna zapuz-tea, ekonomiak erreka jotzea eta gobernatzea ezi-nezkoa izatea". Izan ere, hori baita blokeoaren egiazko helburua, uhartean kaosa eta desgober-nua eragitea eta estatubatuarren interesekiko gobernu morroi bat ezarri ahal izatea, 1959a baino lehen zegoenaren modukoa.

Une honetan, garrantzitsua da gainontzeko herrialdeek Karibeko herri txiki horrek azken hamarkadetan munduari erakutsitako elkartasuna itzultzea Kubari. Izan ere, Kuba beti izan da nazio guztiekiko herrialde solidarioa, herrialde "txiroeta-tik" hasi (Angola, Bolivia, Mendebaldeko Sahara edo Palestina) eta "Lehen Munduko" nazioetan buka; esaterako, Italiak, COVID-19aren pande-mian zehar dozenaka mediku kubatarren laguntza jaso zuen.

Mendebaldeko gainontzeko gobernuak ez bai-tute ezer egiten (gehienek blokeoaren aurkako botoa ematen duten arren gero ez dute neurri errealik hartzen blokeoa amai dadin), munduan giza eskubideak aldeztu ditugun pertsona guz-tion ardura da kubatarrei bermatzea Estatu Batuek ukatzen dizkieten elikagaiak, sendagaiak eta oina-rrizko bestelako produktuak eskuratu ahal izanen dituztela. Zeren eta ez baitago ezer erdeinagarria-gorik nazio bati gosearen eta gaixotasunaren zigo-

rra ezartzea baino, norberaren nazioaren onura politikoaren mesedetan ezarri ere.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat taxutu dezan Kubako Gobernuak bere herritarren oina-rrizko beharrezanek asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa lehenbailehen bidaltzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako eta Kubako herrien arteko harremanak sendotu ditzan, bien arteko harreman ekonomiko eta komertzialak eta ikerketa zientifikoaren arloko harremanak bultzatu ditzan eta, oro har, Kubarekiko lankidetzaren politika mantentzeko dezan esparru guztietan eta bertako era-gile guztiek.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kubarekiko lankidetzaren ekonomikorako programa bat taxutu dezan eta giza laguntza urgentea bidal diezaion, herritarrek oinarritzko produktu eta elikagaiak lortu ahal izatea bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kubaren aurkako enbar-goaren aurka azaltzen jarrai dezan Nazio Batuen Batzar Nagusia, enbargoa amaitzeko lanean jarrai dezan beste nazio batzuekin batera, eta Estatu Batuei exijituz diezaion Kuba Terrorismoa Sustatzen duten Estatu Zerrendatik ateratzeko.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Eleduna: Carlos Guzmán Pérez

## 11-24/MOC-00061. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten baitu

### CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten baitu.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Heldu den ekainean hamar urte beteko dira Felipe VI.aren erregealdia abiarazi zenetik. Koroak aurrekaririk gabeko koroatze-zeremonia egin zuen orduan, bere aita, Juan Carlos I.a, urrezko erretiro batera, errege emeritu modura, alboratzeko balio izan zuena, noiz eta haren ustelkeriakarruselaren icebergaren tontorra baino ez zena ezagutzen hasi ginenean.

Balio errepublikanoak irmotasunaren sinonimo dira, demokrazia herriaren, herriarengatik eta herriarentzako gobernu dela aldezteari dagokionez. Askatasunaren aldeko demokrazia mugimenduaren uste sendoen oinarrian honako konbentzimendu hau dago: gizakiak beren burua gobernatzeko gaitasuna du, inolako diskriminaziorik egon gabe ere. Bateriaezinak dira pertsona guz-

tiek legearen aurrean berdinak direlako eta Estatuan ardurak dauzkaten pertsonak herri subiranotasunaren aurrean erantzun behar dutelako sinesmena eta Espainiako Konstituzioan jasotzen den ez-erantzuletasunaren nahiz bortxaezintasunaren printzipioa.

Monarkia ustelkeria sistematikoaren erakuslea da, ez kasu isolatu modura, baizik eta Borboien Etxeak Estatuarekin izan duen harreman historikoa definitzen duen ezaugarri modura.

Monarkia, halaber, erakunde patriarkal nagusiaren sinboloa da; izan ere, boterea herentzia bidez transmititzen da, eta gizonak emakumearen aldean duen nagusitasuna konstituzionalizatzen da, pertsonen arteko berdintasunaren oinarritzko printzipioari aurka eginez.

Monarkiak, printzipio gisa, demokraziarekin talka egiten du, herriari Estatu gidatzeko gaitasuna ukatzen baitio. Botere monarkikoa ez da erregearen figurara mugatzen, hauteskundeetara aurkezten ez den gutxiengo pribilegiatu bat ere baita, Estatuko aparatuen eta enpresa handietako administrazio-kontseiluen lubakietan babesten dena eta herri-subiranotasuna onartzen ez duena. Kontraesana dago, beraz, monarkiaren eta demokraziaren artean.

Horregatik guztiagatik, 2024ko ekainaren 16an, "Felipe VI.a: 10 urte aski dira. Demokrazia Bai, Monarkia Ez" goiburupean, gure herrialdeko mugimendu errepublikanoa Estatuko hiriburuko kaleetara aterako da, monarkiaren gainbeheraren aurrean demokraziak XXI. mendeko errepublikari bide eman diezaion eskatzeko.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak balio errepublikanoekiko konpromiso irmoa adierazten du.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egingen du "Felipe VI.a: 10 urte aski dira. Demokrazia Bai, Monarkia Ez" goiburupean 2024ko ekainaren 16an Madrilan egingen den manifestazioarekin.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Eleduna: Carlos Guzmán Pérez

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00176. Galdera, Espainiako Alderdi Komunistari ebatsi eta Nafarroako Gobernuaren esku dauden elementu sinboliko-bereizgarriei buruzkoa***CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Espainiako Alderdi Komunistari ebatsi eta Nafarroako Gobernuaren esku dauden elementu sinboliko-bereizgarriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Kulturako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2022an, ikerketa historiografiko baten karietara, Espainiako Alderdi Komunistak jakin zuen

hasieran alderdi politiko horren jabetzakoak izandako lau elementu sinboliko-bereizgarri dauzkala Nafarroako Gobernuak.

Lau elementu horiek (hiru bandera eta zinta bat) Espainiako Gerra Zibilean kendu zitzaizkion Espainiako Alderdi Komunistari, gerrako harrapakin gisa.

Zenbait ikerketa egin ondoren, Espainiako Alderdi Komunistak 2023an egiaztatu zuen elementu horiek Lizarrako Karlismoaren Museoaren biltegian zeudela.

Alderdi Komunistaren ustez, toki hori ez da aproposa, ez ikuspegi politikotik ez historikotik ere, bere elementu sinboliko-bereizgarriak gordetzeko, eta, hortaz, Nafarroako Gobernuari eskatu zion haiek ordezkatzan duten giza taldearen memoria duintzeko beste nonbaitera eraman ditzan.

Zertan dira Espainiako Gerra Zibilean Espainiako Alderdi Komunistari, gerrako harrapakin gisa, kendu zitzaizkion lau elementu sinboliko-bereizgarriak, egun Nafarroako Gobernuaren esku daudenak?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez



## 11-24/POR-00177. Galdera, etxegabetzeen prebentzioari buruzkoa

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak egindako galdera, etxegabetzeen prebentzioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Desberdinkeria adierazpiderik handienetako bat da etxegabetasuna, inpaktu sozial handia duena. Pertsona bat etxetik gabe egotearen atzean arrazoi asko daude; esate baterako, bere etxebizitza galdu izana.

Zer neurri edo programa daude edo jarriko dira abian etxegabetzeak prebenitzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Eleduna: María Aranzazu Biurrun Urpegui

## 11-24/PES-00199. Galdera, Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24-PES-00161 informazio-eskariari emandako erantzunaren arabera, Ingurumen Departamentuak bideraezina ikusten du Los Borjas I eta II eguzki-planta fotovoltaiakoak egitea Los Borjas I eta II parke eolikoekin hibridatzeko, horrek munta handiko ingurumen-afekzioak eragin litzakeelako bertako estepa-espezieengan (ganga iberikoa, Naumann belatza, ganga azpibeltza eta Dupont hegatzabala); lehenbiziko bi horiek, galzoriko espezie gisa daude katalogatuta, eta beste biak, berriz, espezie kaltebera gisa, eta hori guztia erabakigarria izan zen Peñadil, Montecillo eta Monterrey Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko eta KBE horren kontserbazio-egoerari begira.

Ingurumen Departamentuak zer neurri hartuko du horri dagokionez? Alegaziorik aurkeztu al da?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria



## 11-24/PES-00200. Galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakiteko ea aurreko urteetan zenbat pertsona utzi diren itxaron-zerrendetatik kanpo.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbat paziente atera dira itxaron-zerrendetatik kanporatze hori iragartzen duten gutunak bidaliz neurri hori hartu den urte bakoitzean?

Iruñean, 2024ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00201. Galdera, Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Bertizko Jaurerriko Aizkolegi Jauregia birmoldatu edo leheneratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak Aizkolegi Jauregian (Bertiz Jaurerria) jarduketarik egitea hura birmoldatzeko edo leheneratzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## **11-24/PES-00202. Galdera, jakiteko ea nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkaritza, *Robot Dreams* filmaren taldeari babes instituzionala emateko**

*JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, jakiteko ea nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroako Gobernuaren ordezkaritza, *Robot Dreams* filmaren taldeari babes instituzionala emateko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita-ko Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria Los Angelesera joan zen, Navarra Film Industryren ordezkariekin batera, *Robot Dreams* Pablo Bergerren filmaren taldeari babes instituzionala emateko Nafarroako Gobernuaren izenean.

Nork osatu zuen Los Angelesera joan zen Nafarroaren ordezkaritza, kontseilariak eta haren kabineteburuak gain?

Horietako nortzuk joan ziren aurrekontu publikoaren kargura eta zein izan zen horietako bakoitzak eragin zuen kostu xehakaturik?

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00203. Galdera, boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruzkoa

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, boluntariotzaren arloan egon litekeen genero-arrakalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Boluntariotzaren arloan genero-arrakalarik detektatu al du Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak?

2. Hala baldin bada, zertan datza arrakala hori?

3. Zer irizpide baliatu da aukeratzeko ea III. Boluntariotza Planeko zer ekintza sartu genero-ikuspegiaren zeharkako ardatzean? Zer helburu lortu nahi da ekintza horietako bakoitzaren bidez?

Iruñean, 2024ko apirilaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00204. Galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida errazari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak nola aurkeztu eta zabaldu du Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea eta estatuko 7/2023 Legea uztartzeko gida erraza?

Liburuxkarik egin al du eta toki-entitateekin harremanetan jarri al da hori ezagut eta zabal dezaten?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-24/PES-00205. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berria egiteko proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Cascanteko osasun-etxe berrirako proiektuari eta obrak hasteko iragarri zen datan izandako atzerapenari dagokienez:

– Dokumentuak taxutze aldera kontratuan ezarri zen gehieneko epea gaintu al zen? Luzapenerako aukera jaso al zen kontratuan?

– Kontratuan ezarritako betekizunen bat geratu al zen bete gabe eta horrek penalizaziorik ekarri al zuen?

– Cascanteko Udalari noiz eta nola adierazi zitzaion ezinezkoa zela proiektua betetzea?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00206. Galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektuan izandako atzerapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilariak PES-00147 galderari emandako erantzunaren arabera, Cascanteko osasun-etxe berriaren proiektua "aurreikusitakoa baino gehiago" luzatu zen, eta, hori dela-eta, ezin izan zen obra lizitatu eta egin Europako REACT funtsak jaso ahal izateko moduan. Zergatik luzatu zen horrenbeste?

"Hautagarritasun, zenbateko eta epeen arabera bideragarriak ziren beste zer proiekturako" baliatu ziren Cascanteko osasun-etxe berrirako erabili ez ziren funts horiek? Horien guztien zerrenda, zenbatekoak eta administrazio-espediente osoak barne, jaso nahi dut.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-24/PES-00208. Galdera, zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietako irisgarritasun-neurriei buruzkoa**

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietako irisgarritasun-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zaintzen aldeko ituneko 2023ko ahalduntze programetan izena emateko inprimakietan zenbat pertsonak eskatu zituzten irisgarritasun-neurriak? Izena emandako guztiak kontuan hartuta, zer portzentaje egiten dute?

2. Eskatutako irisgarritasun-neurrien xehetasunak, neurri horietako bakoitza eskatu zuten pertsonen kopurua barne.

3. Eskatutako neurri guztiak bermatu ziren ala salbuespenen bat egon zen? Salbuespenen xehetasunak, eta neurri horiek hartzea zerk eragotzi zuen. Etorkizunera begira hartutako neurri zuzentzaileak.

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00209. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrak desafektatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

2023ko abuztuaren 24an, Kasedako Udalaren Osoko Bilkurak honako erabaki hau hartu zuen

"1.- Izapidetzeko onartzea herri-ondasunak desafektatze aldera Heliosolar, SL enpresak aurkeztutako eskabidea, Sangüesa I eta Sangüesa II planta fotovoltaikoen instalaziorako proiektuek ukitutako lurzatiei dagokienez.

2.- Espediente osoa igortzea Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalari, alde aurreko kon-

tsulta bat egiteko xedez, lagapenaren bideragarritasuna egiaztatzeko eta haren iritzia jakiteko."

Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

1. Departamentuak zer erantzun dio Kasedako Udalari, Heliosolar, SL merkataritza-sozietateak sustatutako instalazio fotovoltaikoen instalaziorako herri-lurrak desafektatzeari buruzko alde aurreko kontsulta horri eta bere iritzia jakiteko eskariari dagokionez?

2. Heliosolar merkataritza-sozietatearen arabera, proiektu horrek 3,44 hektarea ukituko lituzke Sangüesa I proiektuan, eta Sangüesa II proiektuan, berriz, 6,57 hektarea. Osoko Bilkura horren akordioa ikusira, departamentuak ere uste al du lurzati horien desafektazioa eskatu dela?

3. Departamentuak ere uste al du bi proiektu horietan ez direla herri-lur gisa sartu kalifikazio juridiko hori eduki badaukaten beste lurzati asko?

4. Udalak uste baldin badu ez direla herri-lur gisa sartu behar 7. poligonoko 65, 79 ½, 87, 90, 93, 97, 100, 101, 102, 116, 118, 129, 134, 137, 145, 146, 151 B, 153, 155, 157, 158, 159, 165, 168, 177, 181, 183, 184, 183 ½, 186, 195 eta 196 lurzatiak eta 6. poligonoko 83a, departamentuak zer lege-ekimen abiaraziko du herri-lur horiek babesteko?

5. Herri-lurrak direnez gero, horietako bakarren baten desafektazioa izapidetzea baimendu du, eta ez horiena guztiena, merkataritza-sozietateak onetsi eta Udalaren Osoko Bilkurak onetsi duten moduan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



## 11-24/PES-00210. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA


EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

2023ko ekainean, Landa Garapeneko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko Herri-lurren Atalak Oibarko, Kasedako eta Zangozako lurzoru urbanizaezinean jarduerak eta erabilerak baimentzeari buruzko txosten bat igorri zion Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurraldearen Antolamenduaren Atalari (0001-OT02-2022-000382 espediente-kodea).

Txosten horretan agerian jartzen zenez, Sangüesa I planta fotovoltaikoak ukitutako herri-lurren azalera, katastroko datuen arabera, 27,58 hektareakoa da, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 3,44 hektareakoa; eta Sangüesa II plantan, berriz, 13,30 hektareakoa, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 6,57koa.

Txostenean honako irudi hau erantsi zen:



Txostenean honako hau ere adierazten zen:

"Kasedako udal-mugar-tean dagoen problema-tika ikusita, desafektazioko administrazio-espe-dienteak izapidetu aitzin ebatzi egin beharko da Sangüesa I eta Sangüesa II planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati-entitulartasunaren gaineko gatazka".

(...) Halaber, espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-ko gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-plantek ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia, bai hitzarmen baten bidez, bai eskubideen utzarazpen administrazioaren bidez".

Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

1. Lurzoru urbanizaezineko lurzati-entitulartasuna dela-eta Herri-lurren Atalak igorritako informazioa ikusita, Lurralde Antolamendu-ko Zuzendaritza Nagusiak ziur al daki Kaseda-

ko Udalak desafektazioko lege-ko prozedura hasi ote duen?

2. Ohartzen al da departamentua Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren uste-ko titulartasun pribatua zer problema-tika sortzen ari den? Zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-entitulartasuna?

3. Herri-lurren Atalaren arabera, "espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-ko gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen aipatu lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia". Departamentuak kontuan hartu al du Herri-lurren Atalaren eskari hori?

4. Eskari hori kontuan hartu ez bada, zergatik ez da kontuan hartu?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-24/PES-00211. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA


EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Transizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun diezazkion:

2022ko azaroaren 15ean, Landa Garapeneko Departamentuko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko Herri-lurren Atalak Oibarko, Kasedako eta Zangozako lurzoru urbanizaezinean jarduerak eta erabilerak baimentzeari buruzko txosten bat igorri zion Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiko Lurraldearen Antolamenduaren Atalari (0001-OT02-2022-000382 espediente-kodea).

Txosten horretan agerian jartzen zenez, Sangüesa I planta fotovoltaikoak ukitutako herri-lurren azalera, katastroko datuen arabera, 27,58 hektareakoa dela, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 3,44 hektareakoa; eta Sangüesa II plan-tan, berriz, 13,30 hektareakoa, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 6,57koa.

Txostenean honako irudi hau erantsi zen:



Txostenean honako hau ere adierazten zen:

"Kasedako udal-mugar-tean dagoen problematika ikusita, desfektazioko administrazio-espeditenteak izapidetu aitzin ebatzi egin beharko da Sangüesa I eta Sangüesa II planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati-entitulartasunaren gaineko gatazka".

(...) Halaber, espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-entitulartasunaren gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-plantek ukitzen dituzten lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia, bai hitzarmen baten bidez, bai eskubideen utzarazpen administrazioaren bidez".

Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

1. Ohartzen al da departamentua Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren usteko titulartasun pribatua zer problematika sortzen ari den? Zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-entitulartasuna?

2. Herri-lurren Atalaren arabera, "espediente honetan esku hartzen duten foru-erkidegoaren administrazio-entitulartasunaren gainontzeko unitateek bertan behera utzi beharko lituzkete kasuko prozedurak, harik eta ez den ebatzen lurzati horien titulartasunari eta eskubideei buruzko auzi nagusia". Departamentuak kontuan hartu al du Herri-lurren Atalaren eskari hori?

3. Geldiarazte-entitulartasunari kontuan hartu ez bada, zergatik ez da kontuan hartu?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-24/PES-00212. Galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten herri-lurren defentsan Kasedako Udalak emandako erantzunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun diezazkion:

2022ko azaroaren 15ean, Landa Garapeneko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko Herri-lurren Atalak Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planta fotovoltaikoen proiektuak jendaurrean parartzeko izapideari buruzko txosten bat igorri zion Kasedako Udalari (1003/SOC/22 espediente).

Txosten horretan agerian jartzen zenez, Sangüesa I planta fotovoltaikoak ukitutako herri-lurren azalera, katastroko datuen arabera, 27,58 hektareakoa dela, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 3,44 hektareakoa; eta Sangüesa II plantan, berriz, 13,30 hektareakoa, eta ez, proiektuan esaten den moduan, 6,57koa.

Txostenean honako hau ere adierazten zen:

"Udalak, Kasedako herri-ondasunen ardura-dun nagusia denez gero, herri-finketan egiten diren jarduketak guztietan pertsonatu beharko du,

adierazteko horien titulartasuna berari dagokiola eta katastroan egun auzilari gisa ageri diren partikularrak ez direla finken jabeak, ezpada horien kultibadoreak.

(...) Udalari gogorarazi behar diogu herri-lurren defentsa bere eginkizuna dela, legez horretara behartuta baitago. Hortaz, Sangüesa I eta Sangüesa II eguzki-planten instalazioa dela-eta udalak daukan dokumentazio guztia –ukitutako herri-lurretako lurzati zerrenda jasotzen duena– eskatzen dio udalari Herri-lurren Atalak, bai eta horri dagokionez hartu diren akordio guztiak ere.

Hori guztia, udalaren herri-ondasunak aldezteko eta babesteko egiten da, eta ekiditeko, betiere, egiten den edozein jarduketatan esplizituki aitortzea "jabetza" partikularrena dela, herri-ondarea- ren kaltetan".

Hori guztia ikusirik, honako hau jakin nahi dut:

1. Departamentuak ziur al daki Kasedako Udala eguzki-planta horiek baimentzeko prozeduran pertsonatu ote den, adierazteko partikularren izenean ageri diren lurzati-tako hainbat herri-titulartasunekoak direla udal katastroaren arabera?

2. Kasedako Udalak Herri-lurren Atalari igorri al zion eguzki-planta horiek ukitutako herri-lurzati zerrenda? Planta horietako bakoitzari dagokionez udalak igorritako zerrendako lurzatiek zer azalera zuten guztira? Katastrokoarekin bat al dator?

3. Kasedako planta fotovoltaikoen proiektuak ukitutako lurzati askoren ustezko titulartasun pribatua dela-eta sortutako problematika ikusita, zein izanen da ondorioa baldin eta proiektuan ez bada aitortzen lurzati horien herri-titulartasuna?

4. Departamentuaren ustez, baldin eta udalak ez badu ezer egiten lurzati horien herri-jabetza aldezteko, "jabetza" partikularra aitortu liteke proiektuan herri-lurzati gisa ageri ez diren horien kasuan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique